

**LANBIDE PROGRAMACIÓN  
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS  
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL**



**INFORMATIKA ETA  
KOMUNIKAZIOAK**

**PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOAK GARATZEKO GOI MAILAKO  
TEKNIKARIA**

**2. modulua: Datu-baseak**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE  
HEZIKETAKO ZIKLOEN  
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN  
DE LOS CICLOS FORMATIVOS  
DE FORMACIÓN PROFESIONAL



INFORMATIKA ETA  
KOMUNIKAZIOAK

## PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOAK GARATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

### 2. modulua: **Datu-baseak**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Argitaraldia: lehenengoa, 2011ko ekaina

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Egileak: Faustin Urrutibeaskoa Onaindia  
Javier Bonilla Etxebarria

Edizioa eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán  
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL  
[www.kei-ivac.com](http://www.kei-ivac.com)



Diseinua eta maketazioa: TRESDETRES

Lege-gordailua: BI-384/2011

Orduak: 198  
Unitateen kop.: 13

Esku artean duzun argitalpen hau aktibo dauden lankideek prestatu dute.

Edozein gai programatzea oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua, eta, horrenbestez, subjektiboa. Hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta, egoki baderitzozu, kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratzeko gidaliburu gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Mugak izan baditzake ere, heziketa-ziklo berrien ezaugarrietan oinarrituta sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria kontuan hartuta (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, eskerrak eman nahi dizkiegu egileei, egindako ahaleginagatik.

## AURKIBIDEA

### UNITATE DIDAKTIKOEN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA Oria

0	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	06. or.
1	1. unitate didaktikoa: Datu-baseen sarrerako analisia	09. or.
2	2. unitate didaktikoa: Diseinu kontzeptuala interpretatzea. Entitate/erlazio eredia	18. or.
3	3. unitate didaktikoa: Diseinu logikoa interpretatzea. Eredu erlazionala	26. or.
4	4. unitate didaktikoa: Entitate/erlazio eredia eredu erlazional bihurtzea	33. or.
5	5. unitate didaktikoa: Erlazioak normalizatzea	39. or.
6	6. unitate didaktikoa: Diseinu fisikoa egitea	45. or.
7	7. unitate didaktikoa: Oinarrizko hautespen-kontsultak egitea	51. or.
8	8. unitate didaktikoa: Hautespen-kontsultetan funtzioak aplikatzea	63. or.
9	9. unitate didaktikoa: Hautespen-klausula aurreratuak lantzea	76. or.
10	10. unitate didaktikoa: Datuak manipulatzeko	82. or.
11	11. unitate didaktikoa: Datu-baseko beste objektu batzuk sortzea eta manipulatzeko: ikuspegiak, sinonimoak, erabiltzaileak, rolak, profilak, indizeak eta sekuentziak	92. or.
12	12. unitate didaktikoa: Gidoiak programatzea	106. or.
13	13. unitate didaktikoa: Datu-base objektu-erlazionalak aztertzea	128. or.

## Unitate didaktikoen sekuentziak eta denboralizioa

EDUKI MULTZOAK							UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
B 1	B 2	B 3	B 4	B 5	B 6	B 7		
							0. UD: Moduluaren aurkezpena.	1 h
X							1. UD: Datu-baseen sarrerako analisia.	6 h
					X		2. UD: Diseinu kontzeptuala interpretatzea. Entitate/erlazio ereduak.	14 h
	X				X		3. UD: Diseinu logikoa interpretatzea. Eredu erlazionala.	8 h
					X		4. UD: Entitate/erlazio eredu erlazional bihurtzea.	13 h
	X						5. UD: Erlazioak normalizatzea.	8 h
	X						6. UD: Diseinu fisikoa egitea.	10 h
		X					7. UD: Oinarriko hautespenezko-kontsultak egitea.	14 h
		X					8. UD: Hautespenezko-kontsultetan funtzioak aplikatzea.	10 h
		X					9. UD: Hautespenezko-klausula aurreratuak lantzea.	10 h
	X	X	X				10. UD: Datuak manipulatzeko.	10 h
	X	X	X				11. UD: Datu-basearen beste objektu batzuk sortzea eta manipulatzeko: ikuspegiak, sinonimoak, erabiltzaileak, rolak, profilak, indizeak eta sekuentziak.	22 h
	X			X			12. UD: Gidoiak programatzeko.	60 h
						X	13. UD: Datu-base objektu-erlazionalak aztertzea.	12 h
GUZTIRA								198 ordu

1. multzoa: Informazioa biltegitzea.  
2. multzoa: Datu-base erlazionalak.  
3. multzoa: Kontsultak egitea.  
4. multzoa: Datuen tratamendua.  
5. multzoa: Datu-baseen programazioa.

6. multzoa: Entitate/erlazio diagramak interpretatzea.  
7. multzoa: Datu-base objektu-erlazionalak erabiltzea.

0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: ordu 1						
<p><b>Ikaskuntza-helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Modulua garapeneraren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.</li> <li>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.</li> <li>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.</li> <li>4. Modulua unitate didaktikoen arteko eta modulua eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.</li> <li>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.</li> </ol>								
EDUKIAK		Multzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.</li> <li>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea.</li> </ul>							
KONZEPITUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.</li> <li>• Modulua garapenera zikloko helburuak lortzeko garaian.</li> <li>• Modulua garapenera helburuak.</li> <li>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak.</li> </ul>							
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.</li> <li>• Modulua garapenera jarraitu beharreko arauak eta irizpideak.</li> </ul>							



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota	Loturiko helburua k	D	NORK		NOLA egingo da	ZERTARAKO egingo da	ZEREKIN egingo da
			Irak.	Ik.			
J1. Ikasleak eta irakaslea aurkeztu.	1	10 min	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak, aurkezpenean, interesgarriak izan daitezkeen alderdiak azalduko ditu; bere esku egongo da informazio bat edo bestea ematea.	Hasierako ezagutza lortzeko eta gizarte-oztopoak hausteko, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Taldea aurreko ikasturtean sortua bada, jarduera hau ez da beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
J2. Programazioa osatzen duten elementuak aurkeztu.	2-4	10 min	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak, eta abar azalduko ditu, eskema bat edota informatika-baliabideak erabiliz.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari, iraupenei eta abarri buruzko ikuspegi orokorra jasotzeko.	Arbela. Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
J3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideak eta arauak aurkeztu.	2-3	10 min	X	X	Irakasleak prozesua kudeatzeko erabiliko dituen askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu, gardenkiez edo beste elementu batzuek lagunduta. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu.  Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertzeko, eta haien jarduna arauzko esparru horretara moldatzeko.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1. Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenak identifikatu.	5	30 min	X	X	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleek abiapuntuan duten jakintza-maila ezagutzeko. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.

### OHARRAK

- Nahikoa da J1 jarduera moduluetako batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egin.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira, nolana ere. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean, abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta A-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: DATU-BASEEN SARRERAKO ANALISIA		Iraupena: 6 ordu						
<p><i>IE1: Datu-baseen elementuak ezagutzen ditu, horien funtzioak aztertzen ditu eta kudeatzeko sistemen erabilgarritasuna baloratzen du.</i></p> <p><b>Ikaskuntza-helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Biltegitratze-sistema logikoak eta horien ezaugarriak aztertzea.</li> <li>2. Datu-base motak erabilitako datu-ereduaren arabera identifikatzea.</li> <li>3. Datu-base motak informazioaren kokalekuaren arabera identifikatzea.</li> <li>4. Datu-baseak kudeatzeko sistema baten erabilgarritasuna ebaluatzea.</li> <li>5. Datu-baseak kudeatzeko sistema baten elementu bakoitzaren funtzioa ezagutzea.</li> <li>6. Datu-baseak kudeatzeko sistemak sailkatzea.</li> <li>7. Datu-base banatuen baliagarritasuna ezagutzea.</li> <li>8. Informazioa zatikatzeko politikak aztertzea.</li> </ol>								
EDUKIAK		Multzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datu-baseak kudeatzeko sistema komertzialak eta libreak sailkatzea.</li> </ul>	X						
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazio-sistemarako sarrera.               <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Prozesuari orientatutako informazio-sistemak:                   <ul style="list-style-type: none"> <li>- Fitxategiak: diseinu logikoa, diseinu fisikoa.</li> <li>- Fitxategien kudeaketa, fitxategiekiko elkarrekintza.</li> <li>- Fitxategi motak (lauak, indexatuak, lasterbideak, eta abar).</li> </ul> </li> <li>○ Datuei orientatutako informazio-sistemak: datu-baseak.</li> </ul> </li> <li>• Datu-baseak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Kontzeptuak, erabilerak eta motak datu-ereduaren eta informazioaren kokalekuaren arabera.</li> <li>○ Datu-base baten arkitektura: barne-maila, kontzeptuala eta kanpo-maila.</li> </ul> </li> <li>• Datu-baseak kudeatzeko sistemak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Funtzioak: deskribapena, manipulazioa, kontrola.</li> <li>○ Osagaiak.</li> </ul> </li> </ul>	X						



	<ul style="list-style-type: none"> <li>o Giza baliabideak.</li> <li>• Datu-baseak kudeatzeko sistemaren funtzionamendua.             <ul style="list-style-type: none"> <li>o Datuen eredu logikoaren arabera: eredu hierarkikoa, sarekoa, erlazionala, objektuei orientatuta.</li> <li>o Gune kopuruaren arabera: zentralizatuak, banatuak.</li> </ul> </li> <li>• Datu-base zentralizatuak eta datu-base banatuak.             <ul style="list-style-type: none"> <li>o Arkitektura.</li> <li>o Abantailak eta eragozpenak.</li> </ul> </li> <li>• Zatikatze-teknikak: bertikala, horizontala, mistoa.</li> </ul>				X						
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datu-baseak kudeatzeko sistema baten erabilgarritasuna ezagutzea.</li> <li>• Lanbideko zereginak egiterakoan, antolatze eta kudeatzeko teknikak ezagutzea eta baloratzea.</li> <li>• Datu-base banatuen baliagarritasuna baloratzea.</li> </ul>				X						
JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK			
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota	Loturiko helburuak	D	NORK		NOLA egingo da	ZERTARAKO egingo da	ZEREKIN egingo da				
			Irak.	Ik.							
J0. Unitate didaktikoa aurkeztu. Zikloa osatzen duten gainerako moduluak dagokienez, moduluaren zeharkakotasun-erlazioa azaldu.		15 min	X	X	Irakasleak ikasleentzako helburu orokorrak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatu eta unitateak elkarrekin eta heziketa-zikloa osatzen duten berariazko gainerako moduluarekin erlazionatu ditu.  Galderak egingo dizkie ikasleei: datu-basearen kontzeptuari buruz duten jakintza-maila, programazioari buruzko alde aurreko jakintzak, datu-baseak kudeatzeko erabiltzen dituzten sistemak...	Modulu honek gainerakoekin duen lotura zuzenez jabetzeko.  Ikasleak landuko duten gaiarekiko interesa izatera bultzatzeko.	OCDA. Egin behar diren lan eta jardueren buruzko informazio digitalizatua (ereduzko ariketak eta ikasturtean erabili beharreko materiala erakutsiko dira).				
J1. Informazio-sistemaren kontzeptuaren azalpenak eman.	1	15 min	X		Informazio-sistemak enpresa baten barruan betetzen duen eginkizuna	Ikasleek informazioa enpresa baten funtzionamendurako zein erabilgarria den	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak,				



					<p>azalduko du irakasleak.</p> <p>Lehenengo sistemaren kontzeptua azalduko du eta, gero, informazio-sistemaren kontzeptuari ekingo dio, eta enpresan dauden sistemen multzoaren barruan kokatuko du (produkzio-sistema, finantza-sistema...).</p> <p>Informazio-sistemaren osagaiak ere azalduko ditu.</p> <p>Bereziki azpimarratuko du informazioa zein garrantzitsua den enpresa bat kudeatzeko.</p>	<p>ikusteko, eta informazio-sistema baten osagaiak identifikatzea lortzeko.</p>	<p>Internet, eta abar.</p>
<p><b>J2. Informatika-sistemaren kontzeptuari buruzko azalpenak eman eta eztabaida egin.</b></p>	1	15 min	X	X	<p>Irakasleak enpresa baten barruan informazio-sistemaren eta informatika-sistemaren kontzeptuen artean dagoen ñabardura-aldea azalduko du.</p> <p>Era berean, informatika-sistemaren osagaiak azalduko ditu.</p> <p>Bereziki azpimarratuko du informatika-baliabideez hornitzea zein garrantzitsua den enpresa baten informazioa kudeatzeko.</p> <p>Irakasleak eztabaida sorraraziko du, informazioa tratatzeko informatika-bitartekoak erabiltzeak eskuzko bitartekoen aldean (karpetak, dokumentuak...) dakartzan onurei buruzko jakintzak ezartzen eta horien inguruan gogoeta egiten laguntzeko.</p>	<p>Enpresa batentzat informazioa informatika-bitartekoen bidez tratatzea zein onuragarria den ezagutzeko eta informatika-sistema baten osagaiak identifikatzeko.</p>	<p>Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.</p>

J3. Fitxategiaren, erregistroaren eta eremuaren kontzeptuen azalpenak eman.	1	20 min	X		Irakasleak fitxategiaren, erregistroaren eta eremuaren kontzeptuak azalduko ditu.  Azalpenarekin batera ikasleentzat hurbilekoak diren gaietako adibideak jarriko ditu.	Fitxategia, erregistroa eta eremua terminoak identifikatzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
J4. Ordenagailu batean informazioa biltegitratzeko euskarri buruzko azalpenak eman.	1	15 min	X	X	Hasieran, irakasleak informazioa biltegitratzeko euskarriaren kontzeptua azalduko du, eta euskarri helbideragarriaren eta helbideraezinaren arteko desberdintasuna adieraziko du.  Gero, galderak egingo dizkie ikasleei, hainbat biltegitratze-euskarri izenda ditzaten eta horien funtsezko ezaugarriak identifika ditzaten.	Hainbat biltegitratze-euskarri identifikatzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
J5. Erregistro fisikoaren eta erregistro logikoaren kontzeptuei buruzko azalpenak eman.	1	10 min	X		Irakasleak erregistro fisikoaren edo blokearen kontzeptua azalduko du, baita erregistro logikoaren kontzeptua ere.  Halaber, erregistro logikoaren eta erregistro fisikoaren arteko desberdintasuna deskribatuko du.	Erregistro logikoaren eta erregistro fisikoaren arteko desberdintasuna eta, hedaturaz, fitxategi logikoaren eta fitxategi fisikoaren artekoa ezagutzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
J6. Fitxategien antolamenduari eta, kasuak kasu, erregistroetara sartzeari buruzko azalpenak eman.	1	35 min	X		Hasiera batean, irakasleak (irudikapen grafikoak erabilia) fitxategi baten barruan erregistroak banatzeko moduei buruzko azalpena egingo du.  Ondoren, antolamenduetako	Fitxategien antolamendu bakoitza identifikatzeko eta kasu bakoitzari dagokion irudikapen grafikoa egiten jakiteko.  Dauden sartze-moduen arteko desberdintasuna(k) ezagutzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.

					bakoitzaren abantailak eta desabantailak azalduko ditu, eta fitxategi baten barruan erregistroetara sartzeko moduak identifikatuko ditu, irudikapen grafikoez baliatuta.		
J7. Fitxategi motei buruzko azalpenak eman.	1	15 min	X		Irakasleak fitxategi bat sailkatzeko dauden irizpideei (edukia, funtzioa, informazio-unitatea...) buruzko azalpena egingo du.	Fitxategi bat identifikatzeko eta zein motatakoa den adierazten jakiteko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
J8. Fitxategiekin egiten diren eragiketei buruzko azalpenak eman.	1	10 min	X		Irakasleak fitxategi batekin egin daitezkeen eragiketak (sortu, ireki, ordenatu, ezabatu...) eta fitxategi baten erregistroekin egin daitezkeenak (kontsultatu, txertatu...) azalduko ditu.	Fitxategiekin egin ohi diren eragiketak izendatzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
J9. Prozesuari orientatutako informazio-sistema bat zer den argitzeko azalpenak eman.	1	30 min	X		Lehenik, fitxategi baten datuak nola deskribatu eta horietara nola sar daitezkeen ikusteko aukera emango duen programa baten aurkezpena egingo du irakasleak.  Gero, programaren eta fitxategiaren artean dagoen mendetasuna azalduko du.  Ondoren, prozesuari orientatutako informazio-sistema batek dituen abantailak eta eragozpenak deskribatuko ditu. Bereziki, kontzeptu jakin batzuk deskribatuko ditu: mendetasuna, erreduantzia, osotasuna, datuak bakartzea, funsgabetasuna...	Prozesuari orientatutako informazio-sistema baten ezaugarriak deskribatzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar. Datu-fitxategi batera sartzen den programa bat.



<p><b>J10. Datu-basearen kontzeptuaren azalpenak eman.</b></p>	1	30 min	X	X	<p>Irakasleak datu-basearen kontzeptuaz dauden definizioak azalduko ditu.</p> <p>Gero, (taldearekin) definizio bakoitza baloratuko dute eta termino horren esanahia hobekien zehazten duena aukeratuko dute.</p> <p>Azalpenean, definizioan dauden terminoak agertuko diren datu-base baten adibidea jarriko du irakasleak.</p>	<p>Termino teknikoak erabilita, datu-base bat zer den definitzeko.</p>	<p>Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.</p>
<p><b>J11. Datuei orientatutako informazio-sistema bat zer den argitzeko eta prozesuari orientatutako informazio-sistema batekin konparatzeko azalpenak eman.</b></p>	1	15 min	X		<p>Irakasleak datuei orientatutako informazio-sistemaren kontzeptua azalduko du.</p> <p>Gero, sistema hori eta prozesuari orientatutakoa (aurrez azaldua) konparatuko ditu eta horietariko bakoitzaren abantailak eta eragozpenak azpimarratuko ditu.</p>	<p>Datuei orientatutako informazio-sistema baten ezaugarriak deskribatzeko eta prozesuari orientatutako informazio-sistema baten ezaugarriekin kontrastatzeko, biak konparatu eta bakoitzaren abantailak eta eragozpenak baloratu ahal izateko.</p>	<p>Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.</p>
<p><b>J12. Datu-base baten arkitekturaren maila buruzko azalpenak eman.</b></p>	1	30 h	X		<p>Hainbat erabiltzailek datu-base bati buruz izan ditzaketen ikusmoldeak azalduko ditu irakasleak.</p> <p>Ondoren, datu-base baten arkitekturaren hiru mailen ezaugarriak deskribatuko ditu: maila fisikoa, kontzeptuala eta kanpoko.</p> <p>Ikasleek kontzeptu horiek errazago uler ditzaten, egokia izan liteke irakasleak</p>	<p>Datu-base baten arkitekturaren mailak izendatzeko eta maila bakoitzaren ezaugarriak deskribatzeko.</p>	<p>Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.</p> <p>Access-en egindako datu-base bat.</p>

					Access-en egindako datu-base baten adibidea azaltzea.		
J13. Datu-base motei buruzko azalpenak eman.	2-3	15 min	X		Irakasleak datu-baseak sailkatzeko hainbat irizpide azalduko ditu. Datu-ereduaren kontzeptuaren azalpena nabarmenduko du.	Datu-baseak hainbat irizpideren arabera sailkatzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
J14. Datu-baseak kudeatzeko sistemaren (DBKS) kontzeptuaren eta haren funtzioen azalpenak eman.	4	20 min	X		<p>Hasieran, datu-baseak kudeatzeko sistemaren kontzeptua azalduko du irakasleak.</p> <p>Irakasleak datu-baseak kudeatzeko sistema ezagunenetako batzuk izendatuko ditu.</p> <p>Oso garrantzitsua da ikasleek datu-basearen eta datu-baseak kudeatzeko sistemaren kontzeptuak ongi bereiztea.</p> <p>Gero, irakasleak datu-baseak kudeatzeko sistema baten funtzioak deskribatuko ditu.</p>	Datu-baseak kudeatzeko sistema bat zer den definitzeko eta bere funtzioak deskribatzeko. Datu-baseak kudeatzeko sistema baten erabilgarritasuna ebaluatzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
J15. Datu-baseak kudeatzeko sistema (DBKS) baten osagaietarako buruzko azalpenak eman.	5	10 min	X		Irakasleak datu-baseak kudeatzeko sistema baten osagaien funtzioak azalduko ditu. Datu-hiztegiaren kontzeptua nabarmenduko du bereziki.	Datu-baseak kudeatzeko sistema baten osagaiak ezagutzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
J16. Datu-baseak kudeatzeko sistema (DBKS) motei buruzko azalpenak eman.	6	15 min	X		<p>Irakasleak datu-baseak kudeatzeko sistemak sailkatzeko hainbat irizpide azalduko ditu.</p> <p>Gaur egun gehien erabiltzen diren datu-baseak kudeatzeko sistemak</p>	Datu-baseak kudeatzeko sistemak hainbat irizpideren arabera sailkatzea. Lan-merkatuan gehien erabiltzen diren datu-base komertzialak eta libreak kudeatzeko sistemak ezagutzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.



					identifikatzea.		
J17. Datu-baseen sistema baten ingurunean dauden erabiltzaileei buruzko azalpenak eman.	6	10 min	X		Irakasleak datu-baseekin erlazionatuta dauden erabiltzaileen inguruko azalpenak emango ditu. Bereziki nabarmenduko ditu datu-baseen diseinatzaileen eta datu-baseen administratzaileen kontzeptuak eta funtzioak.	Datu-baseen sistema baten erabiltzaileak eta horien eskumenekoak diren funtzioak identifikatzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
J18. Datu-base banatuei buruzko azalpenak eman.	7	20 min	X		Irakasleak datu-base banatuen eta datu-base zentralizatuen ezaugarriak azalduko ditu.	Bi mota horietako datu-baseen abantailak eta desabantailak ebaluatzeko. Datu-base banatuen baliagarritasuna ezagutzeko. Bi mota horietako datu-baseen arkitektura identifikatzeko.	Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
J19. Informazioa zatikatzeko politikei buruzko azalpenak eman.	8	15 min	X		Irakasleak informazioa zatikatzeko teknikak azalduko ditu: bertikala, horizontala eta mistoa.  Teknika bakoitza hobeto ulertzeko, teknika horietako bakoitzaren aplikazio-adibideak emango dira.	Datu-base banatuetan ohikoenak diren informazioa zatikatzeko teknikak deskribatzeko.  Informazioa zatikatzeko politikak aztertze, eta teknika bakoitzaren abantailak eta eragozpenak nabarmentzeko.	Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.

#### OHARRAK

- Unitate honetan kontzeptu ugari agertzen direnez, interesgarria izango litzateke irakasleak ikasleei informatika-aplikazioen bat eskaintzea (Freemind, Visio, SmartDraw...), arestian aipatutako termino guztiak agertu ahala jasoko dituzten mapa mentalak egiteko aukera izan dezaten. Jarduera horrek haien ikaskuntza motiba dezake, eta mesedegarria izan daiteke azaldutako kontzeptuak bereganatzeko.
- Izaera teoriko nabarmena duen unitate didaktiko honetan, kontzeptu abstraktuak erabiltzen dira. Hori dela-eta, komenigarria izan daiteke irakasleak irudikapen grafikoak egitea eta adibideak azaltzea, ikasleek edukiak errazago uler ditzaten.
- Komenigarria litzateke proiektagailua eta pantaila (edo arbel digitala) izatea, unitate didaktiko guztietako edukiak errazago azaltzeko.





- Geroago, 5. unitate didaktikoan, ebaluazio-jarduera bat planteatuko da. Test gisako proba idatzia izango da, eta bertan ikasleek unitate honetan eta hurrengoetan landutako edukiei buruzko galderak erantzun beharko dituzte, unitate didaktiko honetan azaldutako edukiak zein mailataraino berenganatu dituzten erakusteko.

2. unitate didaktikoa: DISEINU KONTZEPTUALA INTERPRETATZEA. ENTITATE/ERLAZIO EREDUA							Iraupena: 14 ordu													
<p><i>IE6: Eredu erlazional normalizatuak diseinatzen ditu, eta, eginkizun horretan, entitate/erlazio diagramak interpretatzen ditu.</i></p> <p><b>Ikaskuntza-helburuak:</b></p> <p>1. Entitate/erlazio diagramen berezko sinbologiaren esanahia identifikatzea.</p>																				
EDUKIAK											Multzoak									
											1	2	3	4	5	6	7			
PROZEDURAZKOAK																				
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>Datu-baseen diseinu kontzeptuala:               <ul style="list-style-type: none"> <li>Entitate/erlazio eredua.</li> <li>Ereduaren osagaiak: entitatea (sendoa eta ahula), erlazioa, atributuak.</li> <li>Entitate/erlazio eredu hedatua: ISA erlazioak (espezializazioa, orokortzea).</li> </ul> </li> </ul>															X	X	X	X
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>Lanak egiten dituen bitartean, jarrera ordenatua eta metodikoa izatea, eta zailtasunen aurrean saiatuki jokatzea.</li> <li>Lanbideko zereginak egiterakoan antolatzeko eta kudeatzeko teknikak ezagutzea eta baloratzea.</li> </ul>															X	X		
JARDUERA					METODOLOGIA					BALIABIDEAK										
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota		Loturiko helburuak	D	NORK		NOLA egingo da		ZERTARAKO egingo da			ZEREKIN egingo da									
				Irak.	Ik.															
J0. Unitate didaktikoa aurkeztu.			15 min	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren		Unitate didaktiko honek moduluko gainerakoekin duen lotura zuzenez			Unitate didaktikoa aurkezteko eskema.									

					jarduerak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	jabetzeko. Ikasleak landuko duten gaiarekiko interesa izatera bultzatzeko.	
<b>J1. Datu-base baten diseinua osatzen duten faseei buruzko azalpenak eman.</b>	1	15 min	X		Irakasleak datu-base baten diseinua osatzen duten faseak (diseinu kontzeptuala, diseinu logikoa eta diseinu fisikoa) izendatuko ditu eta horietariko bakoitzaren helburua azalduko du.  Garrantzi berezia emango dio diseinuko jarraitutasunaren ideari, fase baten azken emaitzak hurrengo faserako sarrera elikatzen duela azpimarratuta.	Ikasle bakoitzak ezagutzeko zein beharrezkoa den datu-base bat diseinatzeko teknika bat aplikatzea. Datu-basearen diseinuan aplikatu beharreko sekuentzia ezagutzeko.	Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
<b>J2. Entitate/erlazio eredua aurkeztu</b>	1	30 min	X	X	Irakasleak entitate/erlazio ereduaren ezaugarriak azalduko ditu eta datu-base baten diseinu kontzeptualerako zein egokia den adieraziko du.  Ikasleei proposatuko die Interneten entitate/erlazio ereduari buruzko informazioa bilatzeko.	Ikasleak diseinu-teknika honen ikaskuntzan inplika daitezten motibatuzko.	Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.

<p><b>J3. Entitate/erlazio ereduaren oinarrizko elementuen deskribapena eta irudikapen grafikoa egin.</b></p>	1	1 h	X	X	<p>Hasieran, irakasleak ereduaren oinarrizko elementuak (entitatea, erlazioa eta atributua) izendatuko ditu eta dagokien notazio grafikoa adieraziko du.</p> <p>Azalpenarekin batera, adibide egokiak jarriko ditu.</p> <p>Gero, ikasleek elementu horien adibide gehiago jarriko dituzte, eta modu egokian irudikatuko.</p>	<p>Entitatearen, erlazioaren eta atributuaren kontzeptuak identifikatzeko, dagozkien sinbolo grafikoak bitartez.</p>	<p>Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.</p>
---	---	-----	---	---	--	--	--

<p><b>J4. Atributuen sailkapenari buruzko azalpenak eman.</b></p>	1	1 h	X	X	<p>Irakasleak atributuaren kontzeptuan sakonduko du, eta honako mota hauen arabera sailkatuko du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bakunak edo konposatuak.</li> <li>• Biltegratuak edo eratorriak.</li> <li>• Monobaloratuak edo multibaloratuak.</li> <li>• Aukerakoak edo nahitaezkoak.</li> </ul> <p>Eta dagokien notazio grafikoa zein den adieraziko du.</p> <p>Azalpenarekin batera, adibide egokiak jarriko ditu.</p> <p>Gero, ikasleek elementu horien adibide gehiago jarriko dituzte, eta modu egokian irudikatuko.</p>	<p>Hainbat motatako atributu motak identifikatzeko, dagozkien sinbolo grafikoaren bitartez.</p>	<p>Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.</p>
<p><b>J5. Gako-atributuaren kontzeptua azaldu.</b></p>	1	30 min	X	X	<p>Hasieran, irakasleak gako-atributuaren kontzeptua azalduko du. Ondoren, gako-hautagaiaren kontzeptua deskribatuko du, eta, azkenik, gako-atributuak honela sailkatuko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Identifikadore nagusia.</li> <li>• Ordezko identifikadorea.</li> </ul> <p>Eta dagokien notazio grafikoa zein den adieraziko du.</p> <p>Azalpenarekin batera, adibide egokiak jarriko ditu.</p> <p>Gero, ikasleek elementu horien adibide gehiago jarriko dituzte, eta modu egokian irudikatuko.</p>	<p>Identifikadore nagusia eta ordezko identifikadorea atributuak identifikatzeko, dagozkien sinbolo grafikoaren bitartez.</p>	<p>Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.</p>

<p><b>J6. Erlazio baten graduaren eta entitatearen rolaen kontzeptuei buruzko azalpenak eman.</b></p>	1	1 h 30 min	X	X	<p>Hasieran, irakasleak erlazio baten graduaren kontzeptua (errekursiboa edo bihurtaria, bitarra, hirutarra...) azalduko du. Azalpenarekin batera, adibide egokiak jarriko ditu.</p> <p>Azalpenean entitate bakoitzak erlazioan betetzen duen rola adieraziko du.</p> <p>Halaber, diagrama bat egitean bi erlazio bitar erabili beharrean erlazio hirutar bat erabiltzen denean gertatzen den desberdintasun semantikoa azalduko du.</p> <p>Gero, ikasleek kontzeptu horien adibide gehiago jarri eta egoki irudikatuko dituzte.</p>	<p>Erlazio baten gradua eta entitate bakoitzak betetzen duen rola identifikatzeko.</p> <p>Bi erlazio bitar erabili beharrean erlazio hirutar bat noiz erabili behar den bereizteko.</p>	<p>Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.</p>
<p><b>J7. Kardinalitatearen kontzeptuari eta bere irudikapen grafikoari buruzko azalpenak eman.</b></p>	1	1 h	X	X	<p>Irakasleak erlazio baten kardinalitatearen kontzeptua azaldu eta honako mota hauen arabera sailkatuko du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 1:1</li> <li>• 1:N</li> <li>• N:N</li> </ul> <p>Eta entitate bakoitzak erlazio horretan duen parte-hartzea seinatu eta irudikapenaren bitartez (min, max) adieraziko du.</p> <p>Halaber, dagokion irudikapen grafikoak egingo du.</p> <p>Azalpenarekin batera, adibide egokiak jarriko ditu.</p> <p>Gero, ikasleek elementu horien adibide</p>	<p>Erlazioen kardinalitatea identifikatzeko.</p>	<p>Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.</p>


					gehiago jarriko dituzte, eta modu egokian irudikatuko.		
<b>J8. Entitate baten ahuleziaren kontzeptuari buruzko azalpenak eman.</b>	1	30 min	X	X	<p>Irakasleak adibide egokien bidez azalduko ditu entitate sendoaren (edo erregularra) eta entitate ahularen kontzeptuak.</p> <p>Ondoren, ahulezia identifikazioaren edo existentziaren ondorioz gertatzen den argituko du, eta dagokion irudikapen grafikoa egingo du.</p> <p>Gero, ikasleek elementu horien adibide gehiago jarriko dituzte, eta modu egokian irudikatuko.</p>	Entitate ahulak eta ahultasun mota identifikatzeko.	Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
<b>J9. Entitate/erlazio eredu hedatuaren elementuen deskribapena eta irudikapen grafikoa egin.</b>	1	2 h	X		<p>Irakasleak entitate/erlazio eredu hedatzen duten kontzeptu hauen hasierako azalpena egingo du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• ISA erlazioak: Espezializazioa eta orokortzea. Orokortze-hierarkiak.</li> <li>• Erlazioetako murrizketak (esklusioa, eksklusibotasuna, inklusioa, inklusibotasuna).</li> <li>• Agregazioa.</li> </ul> <p>Gero, orokortze-hierarkiak sailkatu egingo ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Osoa/partziala.</li> <li>• Gainjarria/gainjarri gabea.</li> </ul>	Entitate/erlazio eredu hedatuaren elementuak ezagutzeko, eta dagozkien sinbolo grafikoa interpretatzen jakiteko.	Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.
<b>J10. Entitate/erlazio ereduaren oinarritutako hainbat diagrama kontzeptual interpretatu.</b>	1	4 h 30 min	X	X	<p>Irakasleak emandako hainbat entitate/erlazio eredu abiapuntu izanik, ikasleek kasuak kasu azalduko</p>	Aurrez azalduko kontzeptuetariko bakoitza globalki ezagutzeko. Entitate/erlazio ereduaren diagramak	Entitate/erlazio ereduaren arabera jada landutako diseinu kontzeptualak, interpreta ditzaten.

					<p>ereduaren elementuak identifikatuko dituzte, eta irudikatutako egoerak interpretatuko dituzte.</p> <p>Proposatutako suposizioen konplexutasuna arian-arian areagotuko da.</p> <p>Proposatutako ereduetan, datu-baseetan oinarritutako gaur egungo informatika-sistemetan ohikoak diren egoerak irudikatzen saiatuko da.</p>	<p>ikasteko eta interpretatzeko.</p>	
<b>E1. Datu-base bat diseinatzeko proiektu bat egin.</b>	1	1 h		X	<p>Ikasle bakoitzak, bakarka edo taldean, datu-base bat diseinatzeko proiektu batean parte hartuko du.</p> <p>Horretarako, irakasleak antzeko konplexutasuna duten hainbat entitate/erlazio eredu emango ditu abiapuntu gisa.</p> <p>Ikasleek, bakarka edota taldean (gehienez bi laguneko taldeak izatea gomendatzen da), eskaini zaizkien eredu-tako bat hautatuko dute proiektua egiteko.</p>	<p>Unitate didaktiko honetan azaldutako eduki guztiak modu praktikoan aplikatzeko.</p>	<p>Ikastaroan garatu beharreko proiekturako oinarri gisa baliagarriak izango diren entitate/erlazio ereduaren arabera landutako diseinu kontzeptualak.</p>

#### OHARRAK

- Modulu honi dagokion OCDan, honela deskribatutako ikaskuntza-emaizta lortu nahi da: «eredu erlazionalak diseinatzen ditu, eta, eginkizun horretan, entitate/erlazio diagramak interpretatzen ditu».





Horren ebaluazio-irizpideen artean, bakar bat ere ez dagokio esplizituki mota horretako diagramen beraren sinbologiaren esanahiaren identifikazioari. Nolanahi ere, sinbologia hori behar bezala ezagutzea ezinbestekoa da, datu-base erlazional baten diseinu logikoari ekiteko (hurrengo unitateak). Ikasteko helburu bakar horrekin, hain zuzen ere, proposatu da unitate didaktiko hau.

- Unitate didaktiko honetan, garrantzi berezia emango zaio entitate/erlazio diagraman erabilitako askotariko sinbologia anitza behar bezala interpretatzeari.
- OCDan adierazten den moduan, «proiektuetan edo problemetan oinarritutako ikaskuntza oso metodologia aproposa da, modulu honetan lanek edo proiektuek ezin hobeto irudika baitezakete enpresa bateko egoera erreal bat. Mota horretako metodologiek ikasleen motibazioa areagotzen dute, talde-lana eta ikerketa sustatzen dute eta teoria eta praktika hobeto erlazionatzen laguntzen die». Horretarako, ikasleak hainbat taldetan banatzea proposatzen da, eta, horrela antolatuz, datu-base baten diseinua egitean datan proiektu bati aurre egin diezaioten. Proiektu hori unitate didaktiko honetan hasten da eta hurrengoetan zehar jarraituko du aurrera. Unitate didaktiko honetan eta gainerako unitateetarako bakoitzean denbora jakin bat gordeko da proiektuaren faseetarako bakoitza egiteko. Irakasleak komenigarritzat jotzen duen eran, proiektua unitate didaktiko bakoitza amaitzean has daiteke, edo bestela unitate didaktiko guztiak amaitu ondoren, proiektuak ikasturte osoan azaldutako gai guztia integra dezan.
- Proiektuaren lehen faseak 2., 3., 4. eta 5. unitate didaktikoak hartuko ditu. Fase horretan, irakasleak hainbat entitate/erlazio eredu irudikatuko ditu, ikasleek honako hau egin dezaten:
  - Proposatutako datuen eredu kontzeptualetako bat interpretatzea (2. UD).
  - Hautatutako eredu kontzeptuala eredu logiko erlazional bihurtzeko arauak aplikatzea, gakoak eta osotasun-murrizketak adierazita (4. UD).
  - Eredu erlazionalaren normalizazioa (5. UD).
- Komenigarria litzateke proiektagailua eta pantaila (edo arbel digitala) izatea, unitate didaktiko guztietako edukiak errazago azaltzeko.
- Geroago, 5. unitate didaktikoan, ebaluazio-jarduera bat planteatuko da. Test gisako proba idatzia izango da, eta bertan ikasleek unitate horretan landutako edukiei, besteak beste, buruzko galderak erantzun beharko dituzte, eduki horiek zein mailataraino bere egin dituzten erakusteko. Jarduera horretan, proposatutako diseinu kontzeptual bat interpretatzeko ariketa praktikoa ere egin beharko da.

3. unitate didaktikoa: DISEINU LOGIKOA INTERPRETATZEA. EREDU ERLAZIONALA

Iraupena: 8 ordu

*IE2: Datu-baseak sortzen ditu, eta horien egitura eta elementuen ezaugarriak eredu erlazionalaren arabera definitzen ditu.*  
*IE6: Eredu erlazional normalizatuak diseinatzen ditu, eta, eginkizun horretan, entitate/erlazio diagramak interpretatzen ditu.*

Ikaskuntza-helburuak:

1. Eredu erlazionalan oinarritutako diseinu logikoa interpretatzea.
2. Eredu erlazionalaren berezko terminologia identifikatzea.
3. Datu-base erlazional baten egitura identifikatzea.
4. Eredu erlazionalaren murrizketak ezagutzea.

EDUKIAK		Multzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK								
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datu-ereduak:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Definizioa.</li> <li>○ Sailkapena: kontzeptuala (entitate/erlazio eredu), logikoa (eredu erlazionala), fisikoa.</li> </ul> </li> <li>• Eredu erlazionala. Eredu erlazionalaren terminologia eta egitura:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Erlazioa edo taula.</li> <li>○ Tuploak edo erlazioko errenkadak.</li> <li>○ Atributuak edo erlazioko zutabeak.</li> <li>○ Erlazio baten ezaugarriak eta egitura. Gakoak (hautagaia, nagusia, ordezkoa, arrotza).</li> <li>○ Erlazio baten eskema.</li> <li>○ Erlazio baten instantzia.</li> </ul> </li> </ul>		X					
			X					
			X					
			X				X	
			X				X	
			X				X	
			X				X	
			X				X	



JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanak egiten dituen bitartean, jarrera ordenatua eta metodikoa izatea, eta zailtasunen aurrean saiatuki jokatzea.</li> <li>• Lanbideko zereginak egiterakoan antolatzeko eta kudeatzeko teknikak ezagutzea eta baloratzea.</li> </ul>								X	X
JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK			
ZER egingo dut edo dute Jarduera mota	Loturiko helburua k	D	NORK		NOLA egingo da	ZERTARAKO egingo da	ZEREKIN egingo da				
			Irak.	Ik.							
J0. Unitate didaktikoa aurkeztu.		15 min	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren jarduerak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	Unitate didaktiko honek moduluko gainerakoekin duen lotura zuzenez jabetzeko.  Ikasleak landuko duten gaiarekiko interesa izatera bultzatzeko.	Unitate didaktikoa aurkezteko eskema.				
J1. Datu-base baten diseinu logikoaren faseari buruzko azalpenak eman.	1	15 min	X		Irakasleak datu-base baten diseinua osatzen duten faseak gogoraziko ditu (diseinu kontzeptuala, diseinu logikoa eta diseinu fisikoa).  Xehetasun handiagoz azalduko du diseinu logikoaren xedea.  Garrantzi berezia emango dio diseinuko jarraitutasunaren ideari, fase baten azken emaitzak hurrengo faserako sarrera elikatzen duela azpimarratuta.	Datu-basearen diseinurako teknika aplikatzeko beharra ezagutzeko.  Datu-basearen diseinuan aplikatu beharreko sekuentzia ezagutzeko.  Diseinu kontzeptualetik diseinu logikora bitarteko urratsa ezagutzeko.	Apunteak, liburuak, grafikoak, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, eta abar.				
J2. Eredua erlazionala aurkeztu.	1-2	45 min	X	X	Irakasleak eredu erlazionalaren ezaugarriak azalduko ditu, datu-base baten diseinu logikoaren adibide gisa: datuen independentzia fisikoa eta logikoa, datuak aurkezteko malgutasuna, egitura logikoetako uniformetasuna, erabileraren	Datu-eredu horren funtsezko ezaugarriak ezagutzeko, eta ikasleak datu-eredu horren ikaskuntzan inplika daitezkeen motibatuzeko.	Apunteak, liburuak, arbela, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, diapositibak, eta abar.				

					erraztasuna, eta abar.  Ikasleei proposatuko die Interneten eredu erlazionalari buruzko informazioa bilatzeko: ereduaren ezaugarriak, Codd arauak, merkataritza-produktuak, eta abar.		
J3. Eredu erlazionalaren oinarriko elementuak deskribatu.	2-3	45 min	X	X	Irakaslea eredu erlazionalaren egituraren oinarriko elementuak izendatzen hasiko da (erlazioa, atributua eta domeinua), eta gero definitu egingo ditu.  Azalpenarekin batera, adibide egokiak jarriko ditu.  Gero, ikasleek elementu horien beste adibide batzuk jarriko dituzte.	Erlazio, atributu eta domeinu terminoak identifikatzeko.	Apunteak, liburuak, arbela, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, diapositibak, eta abar.
J4. Tuploaren, graduaren, kardinalitatearen eta balioaren kontzeptuak deskribatu.	2-3	20 min	X	X	Irakasleak erlazio bati dagozkion kontzeptu hauek azalduko ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tuploa.</li> <li>• Gradua.</li> <li>• Kardinalitatea.</li> <li>• Balioa</li> </ul> Azalpenarekin batera, adibide egokiak jarriko ditu.  Gero, ikasleek elementu horien adibide gehiago jarriko dituzte, eta modu egokian irudikatuko.	Tuplo, gradu, kardinalitate eta balio terminoak identifikatzeko.	Apunteak, liburuak, arbela, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, diapositibak, eta abar.



J5. Erlazioen propietateak azaldu.	2-3	15 min	X		<p>Irakasleak erlazio batek bete behar dituen propietateak azalduko ditu.</p> <p>Erlazio eta taula terminoen artean dagoen desberdintasuna ere zehaztuko du.</p>	Erlazioen propietateak identifikatzeko eta erlazio eta taula terminoen esanahia bereizteko.	Apunteak, liburuak, arbela, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, diapositibak, eta abar.
J6. Gako-atributuaren kontzeptua azaldu.	2-3	1 h	X	X	<p>Hasieran, irakasleak gako-atributuaren kontzeptua azalduko du, eta bete beharreko eskakizunak zehaztuko ditu.</p> <p>Ondoren, gako hautagaiaren kontzeptua deskribatuko du, eta, azkenik, gako-atributuak honela sailkatuko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gako nagusia (primary key).</li> <li>• Ordezko gakoa (alternative key).</li> <li>• Gako arrotza (foreign key).</li> </ul> <p>Azalpenarekin batera, adibide egokiak jarriko ditu.</p> <p>Gero, ikasleek elementu horien adibide gehiago jarriko dituzte, eta modu egokian irudikatuko.</p>	Gako hautagaiaren, gako nagusiaren (primary key), ordezko gakoaren (alternative key) eta gako arrotzaren (foreign key) kontzeptuak identifikatzeko.	Apunteak, liburuak, arbela, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, diapositibak, eta abar.
J7. Eredu erlazionalaren murrizketei buruzko azalpenak eman.	4	2 h	X	X	<p>Hasieran, irakasleak erlazio bati aplikatutako murrizketaren kontzeptua azalduko du eta, gero, murrizketa mota hauek aurkeztuko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ereduari datxezkionak.</li> <li>• Semantikoak: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Gako nagusikoak (PRIMARY KEY).</li> <li>– Bakartasunekoak (UNIQUE).</li> </ul> </li> </ul>	Murrizketaren kontzeptua eta murrizketa motak identifikatzeko. Orobat, erlazio batean tuplo bat ezabatze edo eguneratzeko eragiketa batek haren mende dauden erlazioen gainean izan ditzakeen ondorioak identifikatzeko.	Apunteak, liburuak, arbela, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, diapositibak, eta abar.



				<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nahitaezkotasunekoak (NOT NULL).</li> <li>- Osotasun erreferentzialekoak (FOREIGN KEY).</li> <li>- Egiaztapenekoak (CHECK).</li> <li>- Asertziokoak (ASSERTION).</li> <li>- Disparadoreak (TRIGGER).</li> </ul> <p>Irakasleak, osotasun erreferentzialeko murrizketa azaltzen duenean, tuplo bat ezabatzeko edo eguneratzeko eragiketa batek erreferentziatutako erlazioaren gainean ekartzen dituen ondorioak azalduko ditu. Une horretan, aukera hauen arteko desberdintasunak azalduko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Teilakatuta ezabatzea edo eguneratzea (CASCADE).</li> <li>• Ekintzarik gabe ezabatzea edo eguneratzea (NO ACTION).</li> <li>• Ezabatze edo eguneratze murriztua (RESTRICT).</li> <li>• Ezabatzea edo eguneratzea eta balio nulua ezartzea (SET NULL).</li> <li>• Ezabatzea edo eguneratzea eta balio lehenetsia ezartzea (SET DEFAULT).</li> </ul> <p>Arestian adierazitako murrizketei buruzko azalpenekin batera, adibide egokiak jarriko ditu.</p> <p>Gero, ikasleek kontzeptu horien adibide gehiago jarri eta egoki irudikatuko dituzte.</p>		
--	--	--	--	---	--	--



J8. Erlazio baten eskemaren eta datu-base erlazional baten eskemaren kontzeptuei buruzko azalpenak eman.	2	15 min	X		Irakasleak eskemaren kontzeptua azalduko du, erlazio bati buruz eta datu-basea osatzen duten erlazioen multzoari buruz adierazia.	Erlazio baten eskemaren eta datu-base erlazional baten eskemaren kontzeptuak ezagutzeko eta bereizteko.	Apunteak, liburuak, arbela, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, diapositibak, eta abar.
J9. Erlazio baten instantzia kontzeptuari buruzko azalpenak eman.	2	10 min	X		Irakasleak erlazio bati dagokion instantzia kontzeptua azalduko du.	Erlazio baten instantzia kontzeptua ezagutzeko.	Apunteak, liburuak, arbela, gaiarekin zerikusia duten bideoak, Internet, diapositibak, eta abar.
J10-E1. Datu-base erlazionalen eredu logikoak interpretatzeko ariketak egin.	1-2-3-4	2 h	X	X	Ikasleek, banaka edo taldeetan, eredu erlazionalaren arabera irudikatutako datu-baseen eredu logikoak interpretatzeko ariketak egingo dituzte.  Ariketa bakoitza amaitzen dutenean, ikasleek arbelean azalduko dute beren konponbidea eta taldeko gainerako ikasleek oharrak egingo dituzte.  Irakasleak, etengabeko ebaluazioa egiteko, aintzat hartuko du proposatutako ariketaren bat.	Unitatean eskuratutako ezagutzak aplikatzen jakiteko.  Gainerako ikasleen ekarpenekin aberasteko.	Erlazio bakoitzaren eskema. Arbela

#### OHARRAK

- Modulu honi lotzen zaion OCDan zehazten da «modulu honetan ez dela aintzat hartzen diseinu kontzeptualak eta logikoak egitea, horiek interpretatzea baizik». Diseinu logiko bat interpretatzeko, kasu honetan eredu erlazionala interpretatzeko, behar-beharrezkoa da eredu horren ezaugarriak eta berezitasunak alde aurretik ezagutzea. Unitate didaktiko honen bitartez ezagutza hori eman nahi zaie ikasleei.
- Unitate didaktiko honek eredu erlazionalaren oinarriak ezartzea du helburu, ikasleak behar adinako jakintza-oinarria beregana dezan eredu erlazionalan oinarritutako diseinu logika zuzen interpretatzeko eta, horrela, hurrengo unitate didaktikoari arrakastaz ekin ahal izateko; izan ere, diseinu kontzeptualaren fasean lortutako emaitza diseinu logikoaren hasierarekin konektatzen baita unitate horretan.



- Komenigarria litzateke proiektagailua eta pantaila (edo arbel digitala) izatea, unitate didaktiko guztietako edukiak errazago azaltzeko.
- Geroago, 5. unitate didaktikoan, ebaluazio-jarduera bat planteatuko da. Test gisako proba idatzia izango da, eta bertan ikasleek unitate horretan landutako edukiei, besteak beste, erantzun beharko diete, eduki horiek zein mailataraino bere egin dituzten erakusteko.



#### 4. unitate didaktikoa: ENTITATE/ERLAZIO EREDUA EREDU ERLAZIONAL BIHURTzea

Iraupena: 13 ordu

*IE6: Eredu logiko normalizatuak diseinatzen ditu, eta, eginkizun horretan, entitate/erlazio diagramak interpretatzen ditu.*

**Ikaskuntza-helburuak:**

1. Entitate/erlazio diagramen berezko sinbologiaren esanahia identifikatzea.
2. Diseinu logikoaren taulak identifikatzea.
3. Diseinu logikoaren taulak osatzen dituzten eremuak identifikatzea.
4. Diseinu logikoaren taulen arteko erlazioak aztertzea.
5. Gako-eremuak identifikatzea.
6. Osotasun-arauak aplikatzea.
7. Diseinu logikoan eratu ezin diren murrizketak aztertzea eta dokumentatzea.

EDUKIAK		Multzoak						
		1	2	3	4	5	6	7
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osotasun-arauak aplikatzea.</li> <li>• Diseinu logikoan eratu ezin diren murrizketak dokumentatzea.</li> </ul>						X	X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• E/E diagramatik eredu erlazionalera pasatzea.</li> <li>• Erlazioak transformatzea: 1:1, 1:N, M:N.</li> </ul>						X	X
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanak egiten dituen bitartean, jarrera ordenatua eta metodikoa izatea, eta zailtasunen aurrean saiatuki jokatzeko.</li> <li>• Lanbideko zereginak egiterakoan, antolatze eta kudeatzeko teknikak ezagutzea eta baloratzea.</li> </ul>						X	X



JARDUERA				METODOLOGIA		BALIABIDEAK	
